

LIBURUAREN EGUNEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea, zozketaren eremua eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) –Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500– duenak, zozketa bidezko sustapena egingo du. Irabazleak eta bere ikasturteko ikaskideek bi liburuko sorta bana irabaziko dute.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarriarik ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

SUPER BAT haurrentzako aurrezki-kontuaren bezero guztiek hartuko dute parte zozketan, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan duten 6 eta 14 urte bitarteko pertsona fisikoak badira eta 2018ko apirilaren 27ra bitartean izena ematen badute liburuaren eguneko bi liburuko sortaren zozketan parte hartzeko.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak eta/edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

Sustapen honetan, bankuaren iritziz, iruzurrezko jarduketa bat egin duen erabiltzaileak ez du saria eskuratzeko eskubiderik izango.

4.- Zozketa

Zozketa 2018ko maiatzaren 2an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, zozketan ordezkio 3 izen aterako dira modalitate bakoitzeko, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Inprimakiaren bidez, partaideek aukera izango dute adinaren arabera hiru sari-modalitateen artean bat hautatzeko. Irabazle bakarra egongo da, eta izena ematean aukeratutako sari-modalitatea egokitu zaio. Irabazleak eta bere ikasturteko ikaskideek bina liburu irabaziko dituzte, betiere modalitateari dagozkion liburuak. GOAZEN telesaileko bi aktorek banatuko dute saria.

5 egun baliouduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkioarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

Hiru sari egongo dira, modalitate akademiko bakoitzeko bat. Bi liburuko sorta izango da saria, eta irabazleak eta bere ikasturteko gainerako ikasleek eramango dute.

Saria irabazlearen ikastetxean bertan emango da eta GOAZEN telesaileko bi aktore arduratuko dira liburuak banatzeaz.

6.- Sariaren zerga-sistema

LABORAL Kutxak ez du sariaren eragin fiskala bere gain hartuko; egotekotan, irabazlearen kontura izango da.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Gainera, zozketako irabazleak gutxienez argazki bat emango dio entitateari, horrek zozketa argitaratu eta ezagutarazteko erabil dezan.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.